



## MUGIKORRAK ETA BESTELAKOAK.-

### SARRERA.-

Teknologia berriek, gure eskolara hainbat aparatu txiki ekarri dituzte gure ikasleek guk baino hobeto ulertu eta erabili egiten dituztenak. Egoera berri bat da, eta era berean arrotza egiten zaigu: Belaunaldi berriek gaur egunekotasuneko zenbait aspektu guk baino hobeto "jakin" eta dominatu egiten dituzte. Helduek sena jarraitu, zalantzak izan, zezelkatu egiten dugun bitartean gure ikasleek berriz, lotutasunik gabe erabili eta manipulatu egiten dituzte. Eta jakina, euren espiritu ikertzaileak, helduen inolako kontrolak ez mugaturik, posibleak diren aplikazio guztiak igartzea ahalbidetu die. Eta aurrerapen teknologiko oro bezala, bai onerako bai txarrerako erabiltzen dute.

Egoera arrotza dela esaten dugu, eskolak beti "teorian gutxiago dakienari irakastearen" rola izan duelako. Manipulazio teknologikoaren kasuan, bestalde, haiek dira dakitenak eta guk gara "ikasi" edo "ikasteari ezetz esaten diogunak".

"Olagarro" proiektuaren ikuspuntutik ez gara eskola curriculumari ekarpena egin diezaieketen aurrerapen eta hobekuntzetan zentratuko. Protokolo honetan aurrerapen hauek direla eta detektatu ditugun diziplina arazoengatik inguruan arituko gara, eta hauei eman beharreko erantzunei helduko diegu.

1.- Gaur egun mugikorrek aplikazio ugari eta ezberdinak dituzte: deiak, mezuak, bideoak, argazkiak, musika, sare sozialak, internetetik nabigatzeko aukera, etab..

2.- Askok dira aplikazioak, eta euren ERABILERA EGOKIA EGITEN ikastea ez da lan erraza:

2.1- "Erabilera egokia" zer den baloratzea eta adostea esan nahi du. Irakasleriaren artean balore anitzak daudelarik eta gaiari dagokionean, askotarikoa, eztabaida planteatzen den bakoitzean aburu gehiegi agertzen dira.

2.2.- Tutoretza eta eskola momentuetan lantzea suposatzen du. Zentroak jada baditu bere curriculumean tratatzeko momentuak jasota.

3.- Baina momentu informaletan, aisialdian, atsedendian, etab-en, ikasleria gelan dagoenean baino ratio handiago batean topatu egiten da.

Denok badakigu, jarrera indibiduala masan aurkitzen direnean baino askoz neurritsuagoa dela. Kasu hauetan, ikuspegi diziplinario batetik, askoz errazagoa da jarrera ez zuzenetan jautzea kontagio efektua dela eta.

Eskola zentro batean, diziplina maila batez ere atsedendian momentuetan eta jantokian jokatu egiten da. Hor da, zentroko curriculum ezkutua deritzogun horren esparrua, bai baloreen inguruan eta zentroko ikasleriak partekatzen dituen harremanei dagokionez.


Esparru hauetan, ERABILERA EGOKIA lantzea oso konplexua egiten da. Kontrolatzeko aldagai larregi daude: espazio dibertsitatea, ikasleria gehiegi, guardiako irakasleen edo monitoreen erlaxazioa, ERABILERA EGOKIAREN inguruko ikuspegi ezberdinak, etab.

4.- **Aitzakia moduan ulertu ez dadin ere**, esan beharra dago eskola ordutegian mugikorraren erabilera ezak ere aspektu positiboak ditu:

- Klase-kide baten aurrean, azken aurrerapen teknologikoa ez erakustea. ( IZAN materiala (posesio) IZAN pertsonalari (izateari) ez gailentzea) ordu batzuetarako bada era.
- Ordu batzuetan bada ere, norgehiagokan ez aritzea, ea nor den famatuagoa, nor den “guay”ago, edota nor den “jakitunago” TBIn munduan.
- Ez dago txarto aparatu hauekiko “dependentzia sindromea” ekiditen den zenbait ordu izatea. Ohiko bihurtzen ari da ikasleak ikustea, momentu oro mugikorra eskuetan behar dutenaren beharrezanarekin sentitzea. Askorentzat ere, euren harremanetarako makulu baten moduko zerbaitzat izatea. Ez dago txarto lehengo harremanak ezartzeko moduetara bueltatzea. Iraganeko guztia ez da zertan erabili eta botatzekoa izan behar, eta gutxiago oraindik, gizarte trebetasunen inguruan lan egiteari dagokionean.
- **Hainbat gatazka ekiditen ditu:** jelskortasunak, galerak, apurtzeak, lapurretak, behar ez bezalako argazkiak, balizko isolamenduak gizabanakoen arteko harremanetatik kanpo geratzeko joera duten ikasleen kasuan, baimenik gabe argazkiak ateratzea eta interneten zintzilikatzea, eskola orduetan beste ikasleei mezuak bidaltzea, behar ez bezalako WEB guneetan sartzea eta batez ere, *Cyberbullyng* delakoarekin zer kusia duen guztia.
- Arautegi argia da irakasleria guztiarentzat eta interpretazio oso ezberdinak eta zabalak ekidin egiten ditu arautegiaren aplikazio momentuan.

Zentroko guraso eta ikasleekin komunikazioa:

- Gurasoen ardura da adierazpen hau bere seme-alaben jakintzan jartzea.
- Eskola ordutegi barruan, gurasoak seme-alabekin harremanetan jarri behar badira, zentroko telefono bitartez egingo dute.
- **Eskola ordutegi barruan ezin izango da mugikorra erabili irakaslegoaren baimenik gabe**
- Guztiz debekatuta dago inori argazkiak egitea irakasleriaren baimenik gabe
- Baimenik gabe erabiltzekotan:
  - 1.-Zentroko edozein langile edo irakaslek mugikorra eskatu eta konfiskatu dezake
  - 2.- Konfiskatutako mugikorrek, zentroko bedelen ardurapean geratuko dira. Ikaslearen tutore edo gurasoei bueltatuko zaie. Mugikorra jasotzerakoan, paper bat sinatuko dute non, mugikorra bigarren aldiz erretiratzen bada, FALTA LARRIA kontsideratuko dela adierazten den. Hirugarren aldiz gertatzen bada, FALTA OSO LARRIA izango da.
- Lapurtze edo apurketa kasuan zentroa ez da gertatutakoaz arduradun izango, nahiz eta beharrezkoa jotzekotan esku-hartzeko eskubidea gordetzen duen.



DEUSTUKO IKASTOLA

Iruña 2B - 48014 BILBAO

www.deustukoikastola.net

deustuko@euskalnet.net

Tfnoa: 944473645 Faxa: 944472977

.....ikasleak, behar ez bezala telefono mugikorra erabili  
du.

Mugikorren erabileraren inguruko zentroko arautegia honako hau dela oroitzen dugu:

- Gurasoen ardura da adierazpen hau bere seme-alaben jakintzan jartzea.
- Eskola ordutegi barruan, gurasoak seme-alabekin harremanetan jarri behar badira, zentroko telefono bitartez egingo dute.
- **Eskola ordutegi barruan ezin izango da mugikorra erabili irakasleriaren baimenik gabe**
- Guztiz debekatuta dago inori argazkiak egitea irakasleriaren baimenik gabe
- Baimenik gabe erabiltzekotan:
  - 1.-Zentroko edozein langile edo irakaslek mugikorra eskatu eta konfiskatu dezake
  - 2.- Konfiskatutako mugikorrak, zentroko bedelen ardurapean geratuko dira. Ikaslearen tutore edo gurasoei bueltatuko zaie. Mugikorra jasotzerakoan, paper bat sinatuko dute non, mugikorra bigarren aldiz erretiraten bada, FALTA LARRIA kontsideratuko dela adierazten den. Hirugarren aldiz gertatzen bada, FALTA OSO LARRIA izango da.
- Lapurtze edo apurketa kasuan zentroa ez da gertatutakoaz arduradun izango, nahiz eta beharrezkoa jotzekotan esku-hartzeko eskubidea gordetzen duen.

Adierazpena jaso dut: ..... (Data)

Guraso/Tutore legalaren sinadura: .....



DEUSTUKO IKASTOLA

Iruña 2B - 48014 BILBAO

www.deustukoikastola.net

deustuko@euskalnet.net

Tfnoa: 944473645 Faxa: 944472977

## Espedientea

----- ikasleak, **2.ALDIZ** behar ez bezala telefono mugikorra erabili du.

Mugikorren erabileraren inguruko zentroko arautegia honako hau dela oroitzen dugu:

- Gurasoen ardura da adierazpen hau bere seme-alaben jakintzan jartzea.
- Eskola ordutegi barruan, gurasoak seme-alabekin harremanetan jarri behar badira, zentroko telefono bitartez egingo dute.
- **Eskola ordutegi barruan ezin izango da mugikorra erabili irakasleriaren baimenik gabe**
- Guztiz debekatuta dago inori argazkiak egitea irakasleriaren baimenik gabe
- Baimenik gabe erabiltzekotan:
  - 1.-Zentroko edozein langile edo irakaslek mugikorra eskatu eta konfiskatu dezake
  - 2.- Konfiskatutako mugikorrak, zentroko bedelen ardurapean geratuko dira. Ikaslearen tutore edo gurasoei bueltatuko zaie. Mugikorra jasotzerakoan, paper bat sinatuko dute non, mugikorra bigarren aldiz erretiratzen bada, **FALTA LARRIA** kontsideratuko dela adierazten den. Hirugarren aldiz gertatzen bada, **FALTA OSO LARRIA** izango da.
- Lapurtze edo apurketa kasuan zentroa ez da gertatutakoaz arduradun izango, nahiz eta beharrezkoa jotzekotan esku-hartzeko eskubidea gordetzen duen.

Falta larria jaso duenez onderengo neurriak hartzen dira:

- 1.- Gurasoen baimenarekin mobila geratzen da konfiskatuta aste baterako.
- 2.- Mobilari buruzko lan bat egin beharko duela eta Martxoaren 2an aurkeztu.
- 3.- Berriro gertatu ezker **FALTA OSO LARRIA** jasoko duela ohararazten zaio.

Hemen aipatzen dena ulertzen dut eta adierazpena jaso dut:

..... (Data)

Ikaslearen izenpena : .....